INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

6009

EBAZPENA, 2008ko urriaren 17koa, Turismo sailburuordearena; honen bidez jakinarazten da handitu egin direla turismo-enpresen oinarrizko ekipamenduak modernizatzen laguntzeko programan 2008ko ekitaldirako ezarritako laguntzetarako baliabide ekonomikoak.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko apirilaren 16ko Aginduaren bidez (maiatzaren 21eko EHAA, 98. zk.), turismo-enpresen oinarrizko ekipamenduak modernizatzea bultzatzeko laguntzen markoa finkatzen da. Agindu hori aldatu egin zen, bai 2005eko apirilaren 11ko Aginduaren bidez (maiatzaren 4ko EHAA, 82. zk.,) bai 2006ko uztailaren 4ko Aginduaren bidez (uztailaren 24ko EHAA, 140. zk.).

Turismo-enpresen oinarrizko ekipamenduak modernizatzen laguntzeko programan ezarritako laguntza-esleipenaren deialdi publikoa egiten zuen Turismo sailburuordearen 2008ko otsailaren 25eko Ebazpenaren 1. artikuluak dioenaren arabera, bidezkoa da 2008ko ekitaldian emango diren diru-laguntzetarako ezarri ziren fondoak handitzea.

Horrenbestez, 2008ko otsailaren 25eko Ebazpenaren 1. artikuluan ezarritako ahalmena erabilita, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– 2008ko otsailaren 25eko Ebazpenean 2008ko ekitaldirako aurreikusi diren baliabide ekonomikoak 348.196,60 eurora arte handitzea, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren bestelako laguntza programetan agortu ez diren aurrekontu zatien arabera. Ebazpen horren bidez argitara eman da turismo-enpresen oinarrizko ekipamenduak modernizatzen laguntzeko programan ezarritako laguntza-esleipenaren deialdi publikoa.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari zuzenduta, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 17a.

Turismo sailburuordea,
KORO GARMENDIA GALBETE.

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

6009

RESOLUCIÓN de 17 de octubre de 2008, de la Viceconsejera de Turismo, por la que se hace público el aumento de los recursos destinados a las ayudas establecidas en el Programa de apoyo a la modernización de equipamientos básicos en empresas turísticas, para el ejercicio 2008.

La Orden de 16 de abril de 2003 (BOPV n.º 98 de 21 de mayo) del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, modificada por Orden de 11 de abril de 2005 (BOPV n.º 82 de 4 de mayo) y por Orden de 4 de julio de 2006 (BOPV n.º 140 de 24 de julio) establece el marco de ayudas de apoyo a la modernización de equipamientos básicos en empresas turísticas.

De conformidad a lo establecido en el artículo 1 de la resolución de 25 de febrero de 2008 de la Viceconsejera de Turismo por la que se hace pública la convocatoria de concesión de las ayudas establecidas en el programa de apoyo a la modernización de equipamientos básicos en empresas turísticas, procede realizar el incremento de los fondos destinados a las ayudas que en el mismo se establecen para el ejercicio 2008.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 1 de la resolución de 25 de febrero de 2008,

DISPONGO:

Primero.– Incrementar hasta un total de 348.196,60 euros los recursos económicos previstos para el ejercicio 2008, en la resolución de 25 de febrero de 2008 por la que se hace pública la convocatoria de concesión de las ayudas establecidas en el programa de apoyo a la modernización de equipamientos básicos en empresas turísticas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

Segunda.– Contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de octubre de 2008.

La Viceconsejera de Turismo,
KORO GARMENDIA GALBETE.